

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 268. zenbakia. 2018ko ekaina



**22 urteko ibilerari
esker ona**

DROGETEN

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

ITTURRI

Non irakurtzen duzu?

...tabernan, ile-apaindegian, liburutegian, euskaltegian, Abiapuntun, hertz klinikan, okindegian, anbulatorioan, Lobianon...

Etxean doan jaso nahi?

Bidali zure izen-abizenak eta helbidea drogeten@gmail.com helbidera eta hileroko-hileroko etxeko buzoian jasoko duzu.

Ugaro
asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 17 43 44 • ugaro@ugaro.com

Agente eksklusibok:

Allianz 
Seguros

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Dorleta Vidal,
Estibalitz González
eta Ekhi Velar.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Valentin Mugarza.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Valentin Mugarza,
eta Jabi Vidal.

ARGAZKIAK:

Natalia Novoa,
Eskolabarri,
Igor Astarloa,
Mirene Moreno eta Anne
Erauskin,
Aiuri,
Ermuko Txirrindulari Taldea,
AECC,
Estibalitz González,
Valentin Mugarza,
Ainara Riveras
eta Ekhi Velar.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Piedi
Eizagirre eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

San Juan bagillian (Entzuteko: www.alboka.es)

San Juan San Juan bagillian
abadiak eta frailliak
hasarratu ziran,
besterik ez zebezen egiten,
juan ziran ortura sobratana,
sobrian onduan batana
hauxe da gure laztana.
Sorgiñak erre, lapurrak saldu
artuak eta garixak ondo bedeinkatu!



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4

Natalia Novoa (AEB)

ELKARRIZKETA5-7

Igor Astarloa

MALLABIAN ZER?8-9

Juan Carlos Perezi omenaldia

ERMUAN ZER?10

Esperientzia Eskolako ikasleak

ERMUAN ZER?12-13

20 urte minbiziari aurre egiten

MOTZEAN14-15

Anne Erauskin eta Mirene Moreno
Mundialera

KIROLZALE16-17

Txirrindulari gazteak

ESKOLEN TXOKOA18

Eskolabarri ikastetxeko albisteak

IRITZIA19

Biba San Juen!

ANTZINAKOAK20

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

ZORION-AGURRAK21

Saldu, erosi edo agurtu

UZTAILEKO AGENDA ...22

Santixauen aurrekoa

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Natalia Novoa

Chicagora (Amerikako Estatu Batuak, AEB) joan baino lehenago ere, Natalia Novoak bazekien atzerrira joango zela bere ibilbide profesionala garatzera. Industria-gune garrantzitsu batera joateko gogoa zeukan eta Haizearen Hiria aukeratu zuen. Negua ez zaio hain gogorra egin eta orain udak eskaintzen dizkion aukerak aprobetxatzen ari da. Denbora batez bertan geratzea gustatuko litzaioke eta bueltatzen bada, ez du bere burua Ermuan bizitzen ikusten.

- Noiz joan zinen Chicagora? Zer dela-eta?

Urtarrilean heldu nintzen, Icex bekaren bitartez (Euskal Herrian dauzkagun BEINT programaren antzekoa da, baina urte bateko MBA masterrekin eta Madrilen egiten da).

- Erabaki erraza izan zen?

Bai. Erabakia berez bekara sartu baino lehenago hartu nuen, bane-kielako kanpora joan beharko nintzatekeela bai edo bai. Gainera, urte osoa izan nuen nora joan erabakitzeko.

- Nola imajinatzen zenuen leku hura? Aurreiritzirik zenuen? Bete dira itxaropen horiek?

Orokorrean bai. Urtarrilean pentsatzen nuen hotzez hilko nintzela baina egia esan, txamarra on bat eramanda ezta hain zaila izan!

- Nola moldatzen zara hizkuntzarekin han?

Ingelesarekin ondo moldatzen naiz, baina jende asko dago gazte-leraz mintzatzen dena.

- Nolako da zure bizimodua han?

Lanera etortzen naiz, gimnasiora

noa, lagunekin gauza asko egiten ditut... Orain eguraldi ona iritsi da eta hondartzara joaten gara, lakura paseatzera...

- Hemengoarekin alde handia dauka?

Lanari dagokionez ez dago alde handirik, Chicagon industria asko dago, hori izan zen Chicagora etortzea erabakitzeko arrazoi bat. Enpresa euskaldun askorekin egiten dugu lan. Adibidez, gure ofizinan negozio zentro bat daukagu eta Nafarroako Rugui Brights enpresa dago bertan. Baina Chicagok badauzka ezberdintasunak ere Euskal Herrian aurkitu dezakegunarekin alderatuta.

- Zer da gehien gustatu zaizuna?

Hiriak eskaintzen dituen mila aukerak: hondartza, festa giroa, parkeak, zinema aire librean...

- Eta gutxien?

Negua.

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Osteguneko pintxo-poteak lagunekin.

- Ermura bueltatzeko asmoarekin? Horrela bada, noiz?



Denbora tarte bat hemen geratzeko asmoa daukat, baina Espainiara bueltatzen naizenean, Madrilen lan egitea gustatuko litzaidake.

Ekhi Velar

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Igor Astarloa, motorzalea eta txirrindulari ohia:

“Toki pribilegiatu batetik bizitzen ditut etapak”

Txirrindularitzako Munduko txapelduna, errobera biren ganean ari da oraindik Igor Astarloak. Izan ere, bizikleta utzi eta motor ganean jarraitzen ditu etapak gaur egun. Italiako Girotik itzuli berri da eta Italiako errepideetan bizitakoaren berri eman digu. Chris Froomek egindako balentriaren lekuko zuzena izan zen, Kenian jaiotako txirrindulariak ihesaldian egindako ia kilometro guztiak bere alboan egin zituelako. Denak ez, tunel batean irristatu eta lurrera erori zelako Astarloa. Txirrindularitzaz beste modu batean gozaten jarraitzen du ermuarrak.

- Hara eta hona ikusi zaitugu motor gainean Italiako Giroan.

Bai! Azken bost hilabeteetatik hiru kanpoan egin ditut, Giroaz gain beste lasterketa batzuetan egon naizelako. RCS Sport da Giroa antolatzen duen erakundea eta Dubaiko Tourra, Abu Dhabiko Tourra, Tirreno-Adriatikoa, Milano-San Remo, Strade Bianche, Milano-Turin, Lombardiako Giroa eta beste hainbat lasterketa ere bere esku daude. Nik eurentzat egiten dut lan eta lasterketa horietara joaten naiz.

- Handia egin zuen Chris Froomek 19. etapan. 80 km-ko ihesaldia burutu ostean, hiru minutuko atzerapena gainditu eta maglia arrosa jantzi zuen. Etapa historiko horren lekuko zuzena izan zinen, baina baita protagonista ere. Zer gertatu zen?

Normalean txirrindularien aurretik joaten gara errepidean aurkitu ditzaketan arriskuen berri ematen eta Sestriere jaisten gindoazela

tunel bat zegoela abisatu ziguten irratitik. Bustita badago edo errepidea ondo ez badago, abisatu egiten digute, baina ez ziguten ezer esan. Ezkerretara kurba zeukan tunelak eta hartxintxarrak zituen lurrian. Tunelera iritsi arte errepide ona zegoen, asfaltatu berria, baina tunelean sartzean irrist egin eta erori egin ginen. Froome gure atzetik zetorren, baina zorionez frenatu egin ahal izan zuen eta ez zen gurekin erori. Ez genuen minik hartu eta aurrera jarraitu genuen. Marco Velok, nirekin joaten den kideak, esan zidan aurrera jotzeko, horrela telebistan agertuko ginelako eta jendeak ondo geundela ikusiko zuelako. Erortzen garen lehen aldia izan zen.

- Nola bizi izan zenuten etapa hura Froomen albon?

Historiarako etapa izan zen. Movistar, Trek-Segafredo eta beste talde batzuetako kideekin egon ginen eta, eurek esaten zuten, gauza eta baldintza asko

“Txirrindulariek egindako kilometroen bikoitza egin genituen Giroan”

eman behar dira denbora berean horrelako zerbait gertatzeko. Historiako Giroa azkarrena izan da aurtengoa eta jo ta sua joan dira txirrindulariak egunero. Froome ere oso ondo egon zen bere momentua iritsi zenean eta demasekoa egin zuen.

- Giroa Jerusalemen hasi zen eta milaka kilometro egin zenituzten Erromaraino. Zu motor gainean joan zinen. Nekatuta amaitu zenuen?

Oso nekatuta. Desplazamendu asko egin genituen. Lasterketa hasi baino hiru egun lehenago joan ginen Israelera eta etapa luzeak korritu ziren han. Gero, Siziaria joan ginen eta Etnako etapa amaitu eta berehala Calabriara joan ginen. Gaueko 12etan iritsi ginen hotelera eta hurrengo egunean etapa zegoen. Cerviniako etapa amaitzean Turinera joan ginen eta gero hegazkinez Erromara, baina gero 600 km egin genituen Txirrindulariek egindako kilometroen bikoitza egin genuen guk.

- Gustura baina...

Tira, beti esaten dut azken urtea izango dela, baina ikusiko da. Laugarren urtea izan da aurtengoa. Bestetik, toki pribilegiatu batetik bizi izaten ditut

etapak, lasterketan gertatzen diren gauza garrantzitsuenak gure alboan gertatzen direlako. Liderraren ondoan joaten gara beti, beraz, ondo dago.

- Ordu asko egiten dituzue motor gainean etapetan?

Etapa hasi baino 3-4 ordu lehenago joan behar gara irteerara eta 13-16 ordu egiten ditugu guztira egunero. Etapa batzuk aspergarriak izaten dira eta lokartzeko moduan egoten gara, baina mendiko etapa politak izaten dira eta azkar pasatzen da denbora. Hala ere, etapa horietan oso adi egon behar gara mugimendu gehiago dagoelako.

- Zein da zuen lana zehazki?

Lasterketa aurrera doanean, ihesaldia badago, ihesaldiko txirrindularien taldeetako kotxeak aurrera etortzen dira eta aurrera joaten laguntzeko abisuak ematen ditugu; mendiko etapetan, bestetik, argazkilarien motorrak koordinatzen ditugu banan-banan jaisteko, txandaka, toki gutxi eta jende asko egoten delako normalean; gero, errepidean dauden arriskuei buruz abisua ematen dugu, besteak beste.

- Nola hasi zinen motorrale moduan txirrindulari lasterketan?



Igor Astarloa Alberto Contadorrekin.

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
 2012 ko BILBOKO
 TXORIZO TXAPELKETAN
 BIZKAIKO
 TXAPELDUNAK
 PROBLEMU 3-945170563
 ERMUA

Drogetenituri, 268 zk.

ZERMIK
 SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
 DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
 ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
 Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
 Telf: 943 23 10 12



Chris Froome txapeldunarekin aurtengo Giroan

Marco Velo nire taldeki-dea izan zen Mercatone Uno eta Milram taldeetan eta Lago di Gardan bizi gine-nez, elkarrekin entrenatzen genuen. Motorrak gustatzen zitzaizkidala zekien eta berarekin joaten zen motor gidaria hil zenean, proposa-mena egin zidan.

- Aurretik ziklista izanasko laguntzen du lan honetan?

Bai! Lasterketa ondo interpretatzen dakigulako.

- Bizikleta gainean gehi-go gozatzen zenuen?

Ondo joanez gero bai, baina bestela... (barreak). Modu honetan bizikletari lo-

tuta jarraitzen dut, baina hiru hilabeteko lotura izaten da eta beste gauza batzuetarako denbora uzten dit. Batzuetan burura etortzen zaizkit txirrindularia nintzeneko oroitzapenak, baina egin behar izan niotuen sakrifizioak ere gogoratzen ditut, entrenamenduak eta pasatako sufri-mendua. Beraz, gauza bakoitza bere sasoi-an.

- Eroica lasterketan omenaldia jaso zenuen orain dela gutxi. Polita da oraindik ere jendearen esker ona jasotzea zure txirrindularitzako ibilbideagatik?

“Bi bidai luze egin ditut bizikleta gainean eta horrela gozatzen dut gehien”

Noizean behin jaso izaten ditut horrelako omenaldia eta polita da. Italiako Scott markako banatzaileak euren bezeroekin txirrindularitza-bidaiak egiteko eskaintza egin zidan eta Zanzibar eta Dominikar Errepublikan egon naiz, Campagnolok ere urrian Ibizara joateko eskaintza egin dit, datorren urteko otsailean Kanadara mendiko bizikletako lasterketa batera joateko gonbidapena egin didate... eta eskaintza batzuei ezetz esan behar izan diet! Bidaiatzera ohituta nengoen lehendik ere eta faltan botatzen nuen, baina ez dut nahi gehiegi lotzea ere, beste gauza batzuk egiteko denbora edukitzea gustatzen zait. Bizikletan ibiltzen ere jarraitzen dut, baina igartzen da urteak aurrera doazela (barreak).


- Bizikleta gozamenerako hartzen duzu orduan?

Bai. Bi bidaia luze egin ditut bizikleta gainean eta horrela gozatzen dut gehien. Lehenengoan Costa Ricara joan nintzen hilabetez, eta bigarrengoan Australiara joan nintzen hilabete eta erdian 3.000 kilometro egitera. Erloju eta presa gabe joaten naiz, gozatzera bakarrik. Hemen negua bada eta toki beroetara banoa, hobe! Luxua da.

- Frantziako Tourra ate joka dugu. Nor da zure favoritoa?

Froome. Uste dut Giroan ez zela %100ean ibili. Bi agerraldi oso on izan ziotuen, baina denbora galdu zuen hainbat etapatan. Uste dut Tourrean ez dituela horrelako galerak edukiko. Movistarrek oso talde indartsua eramango du Tourrera, baina gauzak ondo eramaten dituzten ikusi beharko da.

Ekhi Velar



Juan Carlos Pérez:

“Asko eskertzen dut omenaldia jaso izana, nire emaztearengatik batez ere”

Lagunek, ezagunek, jokalariek, jokalaria ohiek... ia Mallabia osoak eman nahi izan zizkion eskerrak Juan Carlos Perez Mallabiko frontoian. 22 urtetan zehar futbol entrenatzailea izan da Carlos eta omenaldi beroa jaso zuen Mallabiko Hamabostaldiaren barruan. Etapa bat amaitu du entrenatzaile moduan, baina kirolaren inguruan lan egiten jarraituko du irailtik aurrera, herriko gazteei aisialdirako eskaintza zabala eskainiz. Ez hori bakarrik, jubilatuentzat ere ekintzak prestatzen hasiko da. “Niri ere laster tokatuko zait jubilatzea!”.



- *Lagun asko bildu zen Mallabiko frontoian zuri omenaldia eskaintzeko. Zer sentitu zenuen horrelako beroa eta esker ona jasotzean?*

Ez nuen espero hainbestetarako izango zenik. Hogeita bi urtetan jokalaria eta gazte asko pasa dira areto-futboleko taldetik eta baten bat etortzea espero nuen, baina ez nuen espero ia herri osoa etortzea. Ezagutzen dudana jende guztia etorri zen, ia jokalaria guztiak ere, eta etorri ez zenak esan zidan zergatik ezin zuen etorri, eskertzekoa da. Oso hunkigarria izan zen eta asko eskertzen dut omenaldi hau jaso izana, batez ere nire emaztearengatik. Berari ere esker ona eskaini zioten. Be-

ra da ibilbide honetan guztian biktima. Gustuko onua egiten ibili naiz ni, baina asteburu gehienak lanpetuta eta berak ezin izan ditu gauza asko egin horren ondorioz. Gauza asko sakrifikatu behar izan ditu. Beraz, polita izan zen berak egindakoa eskertzea. Gainera, emazteak klubean laguntzen du, diruzaina delako. “Zure etsaiaren aurka ezin baduzu egin, berarekin batu”, esan ohi da, ba berak hori egin zuen.

- *Areto-futboleko egindako ibilbidea eten duzu, baina beste gauza batzuetan lan egiteko asmoarekin zabil-tza?*

Futbol federatua utziko dugu. Karga handia du lan horrek, lan guztiaren %80

delako, eta bertan behera geldituko da datorren denboraldian. Orduan, herriko gazteekin lan egingo dugu buru-belarri, eskaintza zabala eta erakargarria eskainiz. Lan handia egingo dugu eta pare bat monitoreekin berba egin dut dagoeneko. Presidenteak, bestetik, eskoletako futbolaren ardura dauka eta bera ere konprometitu egongo da proiektu berri honetan. Futbito-eskola mantenduko dugu, tenis-eskola berreskuratuko dugu eta gazteentzako saskibaloieskola sortuko dugu. Zaldibarreko taldearekin akordioa daukagunez, futboleko egin izan dugun bezala, saskibaloira “engantxatzen” direnek Zaldibarren jarraitu ahal izango dute jokatzeko.

Asteburuetan eta Mallabian ez dagoenez eskaintza askorik gaztetxoentzat, bi astean behin ‘Super igandea’ delakoa antolatuko dugu. Uztailan bilduko gara ekimena aurrera eramango dugun taldea. Goizean jolasak egingo dira bi orduz, beti kirolarekin lotuta, umeek ondo pasa dezaten lehian ibili barik. Volleyballa, saskibaloia, futbola, dardoak... denetarik egin ahal izango dute. Gainera, igel-jokoa ere egingo dugu, hori jubilatuei zuzenduta bereziki. Izan ere, pertsona nagusiei ere ekintzak eskaintzen hasteko asmoa daukagu poliki-poliki. Bestalde, Nahikari taldeko emakumeekin ere berba egin dugu eta euren zuzendutako ekintzak ere gara-

MALLA
ileapaindegia

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

tzeko asmoa daukagu. Adibidez, gaur egun antolatzen dugun frontenis maratokia mistoa da, baina emakume gutxi ematen du izena gizonen aurka jokatu behar dutelako (Burgos, Villarcayo eta hainbat tokitatik etortzen diren maila handiko jokalaririk). Orduan, emakumeentzako maratokia sortzea da asmoa, ea Euskadiko maila handiko bikoteek izena ematen duten. Azken finean, futbolak hartzen zuen denbora guzti horren zati bat beste ekintza batzuk egiteko bideratuko dugu eta herrian zentratuko gara gehiago.

- Beraz, jasotako omenaldiak aurrera egiteko bultzada eman dizu?

Ez, tira, aurretik geneukan pentsatuta hau guztia. Futbol federatuak asko nekatzen du. Giza baliabide eta baliabide ekonomiko asko behar ditu eta, ondorioz, beste ekintza guztiak pixka bat baztertuta egon dira. Lehen,

adibidez, umeentzako zinea eskaintzen genuen igandero Kultur Etxean, baina aurten birritan egin dugu gehienez, futbolak denbora guztia hartzen duelako. Bada datorren urtean umeentzako zinea eskainiko dugu berriz bi igandetik behin.

- Nola hasi zinen Mallabiko taldean

Kasualitatez. Lehen Ermuan bizi nintzen eta oso txarra nintzen futboleant jokatzen. Beraz, Fernando Francok umeen talde bat entrentatzeko proposamena egin zidan. 16 urte nituen eta 8-9 urteko umeak entrentatzen hasi nintzen. Urte batzuk egin nituen hor, baina arlo ekonomikoa gailendu zen eta umeek dirurik uzten ez zuten, proiektu hura itzali zen. Orduan epaile moduan hasi nintzen. 20 urte egin nituen epaile moduan, duela 30 urte Mallabira etorri nintzen eta, casualitatez, orain dela 22 urte herriko

gazte talde batek futboleant egin nahi zuen. Federazioan sartuta nengoela zekitenez, laguntza eskatu zidaten eta hor sortu zen lehen taldea. Entrenatzen hasi ginen eta zerbait handiagoa egin behar zela konturatu nintzen, Mallabian ez zegoelako ezer. Herrian pilotan besterik ez zen jokatzen, ez zegoen aukera gehiago, txirrindularitza taldea ere itzaltzen zegoelako. Orduan, nik laguntza eskatu zidaten gazteei lagunduen, baina eurei ere laguntza eskatu nien trukean, herrian zerbait handiagoa egiteko. Udalak lokal bat utzi zigun eta jolaslekua sortu genuen. Futbolina, ping-ponga, billarra, mahai-jokoak... erosi genituen eta aisialdirako aukera berria eskaini genien gazteei. Gero, futbito-eskola sortu genuen, jolasak eta txapelketak antolatzen hasi ginen, tenis taldea sortu genuen, frontenisa ondoren... eta proiektua hazi egin zen.

- Lan handia egin duzu!

Sasoi hartan horren beharra zegoen Mallabian eta niregatik ere egin nuen. Izan ere, horrelako gauzak egiteko beharra izaten dut, asko gustatzen zait. Gaur egun, ordea, lan asko egiten duten talde asko dago eta zoragarria da.

- Areto futboleko taldea desagertu egingo da, ezta?

Bai, Euskal Ligako eta jubenetako taldeak desagertu egingo dira. Jubenetako taldea Euskadiko txapelduna izan da aurten eta Maila Nazionalera igo behar zen, baina desagertu egingo da.

- Eta jokalariek zer egingo dute?

Zikloa bete egin da, lau urte dabilta jokatzen eta gehienak afizionatuetara pasako dira. Gainera, gero eta Mallabiko jokalaririk gutxiago dago, Zaldibarrera joaten direlako eta gero itzultzea kosta egiten zaie. Ermua, Zaldibar eta Mallabiko jokalariekin osatu genuen talde hau eta aurten Bizkaiko eta Euskadiko txapeldunak izan gara. Ermuko Scorpioriekin berba egin dugu proiektuarekin jarraitzeko, baina Maila Nazionalean Asturias, Kantabria, Nafarroa eta Errioxara joan behar gara jokatzerara eta 1. mailako titulua duen entrenatzailea eduki behar da. Beraz, entrenatzaile bat fitxatu behar zen, aurrekontua handitu, baina ez zegoen dirurik.

- Gutxienez, maila gorenean amaitu duzue.

Zoragarria izan da horrela amaitzea!

Ekhi Velar



uriarte asesores ✓
 Aholkularitza fiskala
 eta lege aholkularitza
 Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
 48260 · Ermua · Bizkaia

PUB YOMY
 Zubiaurre
 kalearen
 bihotzean

Ikasten jarraitzeko gogoia

Debarrenako Esperientzia Eskolaren hamalagarren edizioan hartu dute parte Escolástica Martín (Esco) eta María Lópezek, eta urte zoragarria pasa dutela aitortu digute. Jubilazioa bizitzeko modu aparta dela adierazten dute eta bertan parte hartzeko gonbitea egiten diote jendeari. Pena handia daukate ikasturtea amaitu delako, baina datorren urtean antzeko egitasmoan parte hartuko dutela diote.

Jendeak pixa egiten duen tokietan ‘gune toxikoa’ jartzen duen kartela ikusten baduzue edo paretetan egiten diren zirriborroetan ‘firma asko, arte gutxi’ eta ‘hau bai zikina’ kartelak daudela ikusten baduzue, jakin ezazue Esperientzia Eskolakoekin ekinenez egin direla. Urtero bezala, ikasturte amaierako proiektu bat jarri ohi dute martxan eskolan eta gizabidez bizitzeko ekimenak jarri dituzte martxan aurten. “Aurreko urteetan antzerki-taldea sortu zuten, bidegorriaren inguruan egin zuten lana, eta asko pentsatu eta gero, gizabidezko jarreraren inguruko proiektua egitea erabaki genuen”, adierazi digu Escok. Egunerokotasunean ikusten diren jarrez ohartarazi nahi izan dutela dio: “Kontenedore kanpoan jartzen diren zaborrak, jaso gabeko txakuraren kakak, zentzurik gabeko grafitiak eta abar, adibidez”.

Mariaren ustez galtzen ari da gizatasun hori eta gero eta agresiboagoa da gizartea. “Ez dakit zergatik izango den; gauza gehiegi ditugulako buruan, gauzak ez zaizkigulako irteten guk nahi dugun moduan... ez dakit, baina edozer gauzarenga-

tik asaldatzen da jendea”. Orduan, eurek garatu duten ekimenarekin jendeari pentsarazi eta hausnartzeko gogoia eragin nahi diote.

Hitzaldi eta taller interesgarriak

Esperientzia Eskolan parte hartu duten 15 kideek ere izan dute hausnartzeko aukera ikasturtean zehar. Hainbat hitzaldi eta taller jaso eta oso balorazio ona egin dute Esco eta Mariak. “Oso jende ona etorri da hitzaldiak ematera, landu ditugun gaietan oso jantziak, eta pentsarazi egin digute”, Mariaren esanetan.

Historia, gaitasun fisikoa, matematika, amatasun subrogatua, etika, musika, artea... mota askotako gaiak landu dituzte ikasturtean zehar eta hainbat irteera egin dituzte. Debarrenako zenbait herritako 15 lagunek hartu dute parte ikasle moduan eta talde txikiak izateak parte hartzea sustatzen duela adierazi digu bikoiteak. “Taldea asko aberasten da horrelako gaiei buruz denon artean berba egiten dugunean, norberak dituen iritzi, ideia eta zalantzak argitu daitezkelako eta asko ikasten delako”, dio Mariak. Iritziak, pentsamoldeak eta usteak



partekatzeaz gain, jende berria ezagutzeko aukera ederra izan da ikasturtea. “Adin ezberdinetako jendea batu gara, interes eta jakin-min anitzeko jendea, eta ez genuen ikasturtea amaitzerik nahi”.

Jubilatuaren esperientzia gutxietsi

Errealitate ezberdinak bizi dituen jendea joaten da Esperientzia Eskolara, baina Escoren ustez eguneko ordu asko betetzea da jende askoren asmoa hasieran. Mariaren kasuan, ordea, eguneroko agendan berarentzat bakarrik izango zen tokia aurkitzea zen asmoa, eta lortu du. Hala ere, ados dago Escok adierazitakoarekin. “Jubilatuaren garenan ematen du dagoeneko

ez garela baliagarriak gizartearentzat, parasitoak garela, eta jubilatuek daukagun esperientzia handia gutxietsi egiten da”. Dantzan egitea, bidaia eta horrelakoak eskaintzen zaizkie orokorrean jubilatuei, eta eurek hori gustuko badute ere, nahiago dute ezagutza handitu eta aurten izan duten esperientziaren antzekoak edukitzea.

Datorren ikasturtean ezingo dute parte hartu Esperientzia Eskolan, baina Ikasten egitasmoan emango dute izena, hau da, Esperientzia Eskolako ikasle ohiek garatutako proiektuan. “Ez dugu honen guztiarekin deskonektatuko”, azpimarratzen dute.

Ekhi Velaz

ERMUKO GAZTE VI EGUNA UZTAILAK 7

12:00 FAMILIEN ARTEKO JOLASAK

13:00 MINTZODROMOA

14:00 ARGAZKI ERRALDOIA

14:30 HERRI BAZKARIA

16:00 EUSKARAOKEA ETA SORPRESA

18:00 GAZTE OLINPIADAK

19:30 POTEKO MUSIKATUA

21:30 KONTZERTUAK

SALDA DAGO!
TALDEA



Bazkarirako tiketak
erosteko tabernak:

- Txalaparta
- Karikato
- London
- Infreñu
- Lurpe



20 urte minbiziari aurre egiten

Alboka Musika Eskolak eta Debabarrenako Orfeoia kontzertu berezia eskaini zuten maiatzaren 12an parrokian. Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarteak (AECC) Ermuan duen batzordeak 20 urte bete ditu aurten eta egindako lanaren esker ona jaso zuten Ermuko boluntarioek. Angela Rabadán eta Kontxi Muñoz kideekin egon gara eta AECCren Ermuko Batzordeak egiten duen lanaren inguruko hainbat konturen berri eman digute.

Hogei urte gehi bi bete ditu zehazki AECCren Ermuko batzordeak. “Lehenengo bi urteetan minbiziaren aurka lan egiteko dirua batzen hasi ziren hainbat emakume eta gero eratu zen batzorde moduan”, adierazi digu Angela Rabadán Ermuko

boluntarioak. AECCren babesarekin laguntzarako aukera gehiago sortu ziren eta egitura sendoagoa edukitzea suposatu zuen. Hala ere, egitura hori guztia ez da ezer boluntarioen lanik gabe eta ermuarrek konpromiso handia erakutsi dute 20 urte hauetan zehar.



Angela 2011an hasi zen boluntario moduan eta Kontxi Muñozek 15 urte inguru daramatza elkartearen. Eurak dira gaur egun Ermuko batzordearen ordezkariak, baina talde osoaren lana goraiatzeko dute. Gainera, hasieratik taldean dabilzan edo elkartearen urte asko darama-

tzaten emakume asko minbizia izan eta gaitza gainditu dute. “Gu taldeko beste kide bi gehiago gara, baina baten batek koordinatu behar du, baimenak eskatu eta abar”. 36 boluntario dira guztira eta horietako bi besterik ez dira gizonetakoak. “Kontua ez da emakumezkoak solidarioagoak garela, baizik eta zaintza lanetan gehiago ibili garela emakumeak eta horregatik dago taldean emakume gehiago. Gainera, batezbesteko adina ere nahiko altua da”, Angelak esaten duenez. “Pozik hartuko genuke taldean gizon gehiago”, esan digu Kontxik, “batzordearen atak zabalik daude”.

Ermuko batzordeak AECCk estatuan antolatzen dituen kanpainak gauzatzen ditu herrian eta Bizkaiko batzordearen bitartez egiten dute lan.



Ferretería
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILIZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

Dejate
QUERER
BERRIA
ERMUA

Bitsi-denda Tailer propioa Edoju-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak
bereziten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com



Otsailean, adibidez, Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Egunaren inguruan hainbat jarduera egiten dituzte (informazio-mahaia jarri eta hitzaldi bat eskaintzen dute), Loteriak urtean behin AECRCri egun bat eskaintzen dio eta loteria saltzen dute kalean (saldutakoaren ehuneko bat Ermuan geratzen da), hainbat kanpaina egiten dituzte (kolon-minbiziarena, tabakoarena, eguzkiarengandik babestekoa, bular-minbiziarena...), eta azken urteotan arrakasta handia izan duen martxa antolatzen dute. “Gure ekintza arrakastatsuen da”. Bi urte daramatzate martxa antolatzen eta harrituta daude ermuarren erantzunarekin. “3.000 kamiseta saldu genituen lehen urtean, 3.500 hurrengoan eta aurten 3.600 banatuko ditugu”, Kontxik dioenez. Herritarren eran-

tzuna bikaina bada ere, badakite ezin dela ekitaldi oso handia egin, Ermuaren tamaina kontuan izan behar delako. “Jende asko biltzen gara eta lehiarik ez dagoenez jendea lasai doa, beraz, ezin daiteke askoz ere jende gehiago batu, gehiegizkoa izango litzatekeelako”. Ekimen honek herriaren duen arrakasta irudikatzen dute Ermua. “Donostian egin zen minbiziaren aurkako martxa 1.000 lagun inguru batu ziren, baina Donostiak duen biztanleria kontuan hartzen badugu, Ermuan lortzen dugun partaide kopurua oso handia dela ikus dezakegu”. Ermuarrez oso harro daudela diote biek.

Martxa arrakastatsua

AECRCko Ermuko batzordeak hainbat zerbitzu eskain-

tzen ditu beharrak dituen jendearentzat. “Guregana etortzen diren batzuek berba egitea nahi dute, besterik gabe. Gaixotasuna pasatzen ari direla kontatzen digute, nola sentitzen diren, nork lagundu ahal dien galdetzen digute... barruak husteko beharra sentitzen dute”. Bestetik, Bizkaiko batzordearekin jartzen dira kontaktuan beste behar batzuk dituen jendeari laguntzeko. Adibidez, pelukaren bat behar dutelako, fase terminalean dagoen batek ohe berezia behar duelako, protesiak behar dituztelako, eta abar. “Gainera, laguntza psikologikoa eskaintzen dugu Bizkaiko batzordearen bitartez Bilbon, den-dena modu indibidualan”. Zerbitzu horiek jaso dituztenak oso pozik geratu direla esan digute Ermuko batzordekoek eta euren esker ona jaso dutela. “Gizar-

te eta giza lan garrantzitsua egiten dugula uste dut”, dio Angelak.

Urtean zehar behin bakarrik eskatzen dute dirua eta hori azpimarratu nahi dute boluntarioek. “Gainerakoean, mahaia jartzen duguean, informazioa eskaintzeko izaten da”. Gero, jasotako diru hori minbiziari aurre egiteko garatzen diren ikerketak diruz laguntzeko erabiltzen saiatzen dira. “Iaz ikertzaile bati eman genion dirua eta aurten berdin jarduteko asmoa daukagu. Diruaren hartzaileari izena eman nahi genion, jendeak ikusteko diru hori benetan ikertzeko erabiltzen dela”. Iaz bildutako dirua jaso zuen ikerlaria Ermuko martxara etorri zen eta bere lanaren berri eman zion jendeari.

Aurtengo martxan ere ermuarren erantzun ona jasotzea espero dute eta, nola ez, diru hori minbiziari aurre egiteko erabiliko da. Bitartean, Angela eta Kontxik lanean jarraituko dute Ermuko batzordeko beste kideekin batera. “Boluntarioa izatea atsegingarria da eta boluntarioa izan arte ez dakizu zer den sentimendu hori”, Angelaren berbetan. Batzordean hasieratik parte hartzen duten emakumeak dira euren ereduak, “izugarritzko lana” egin dutela azpimarratzen dute eta gogo handiz jarraituko dute lanarekin. “Minbizia gaintzearen inguruan berri onak entzuten ditugunean guk ere zerbait egin dugula sentitzen dugu”.

Ekhi Velar


Hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g. 943030527


CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonia 943 17 04 14

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13
(Ermua)

ENKARGYAK
943 030 299

428 HAUR ETA GAZTE ANTXTIXIKETANEKIN UDALEKUETAN


Antxtixiketan aisialdi taldeak Lehen Hezkuntzako udalekuetan parte hartzeko izena eman zuten ume guztiak onartu ditu eta 428 lagunek gozatu ahal izango dute udan egingo diren ekintza ugari. Euskal Herriko kale, mendi eta hondartzak zarata eta kolorez betetzeko prest daude Antxtixiketaneke begiraleak eta baita umeak ere. Ibiltarrietan eta Ludotekan ere azken orduko izen emateak izan ditu taldeak, eta 83 gaztetxo eta 68 txiki ibiliko dira egitasmo hauetan.

SAN JUAN SUA PLAZAN

San Juan Sua da udaren hasieraren ikurra eta aurten ere suaren inguruan dantza, kanta eta irrintzi egiteko aukera egongo da Orbe Kardinalaren plazan. Txindurri eta Euskal Birusak hainbat ekintza antolatu dituzte ekainaren 23rako. 22:30ean Akelarrea egingo da suaren inguruan. Irrintzi lehiaketan parte hartzeko aukera egongo da eta, San Juan kantua abestu ostean, korru-dantzak egingo dira. 00:00etan, festa giroan jarraitzeko, suzko zezena egongo da.

Quetzal irabazle

Ermuko Quetzal arropa dendak Smash etxeak Estatuan antolatutako erakusleho lehiaketa irabazi du. Madrilgo Valdemoro, Asturiasko Mieres, Granadako Salobreña eta Sevillako Estepa herrietako denda desberdinekin batera 5 finalisten artean egon ostean, Facebook bitarteko bozketak eman die garai-pena ermuarrei. Bost horien artean egotea berez ohore handia izan bada ere, Quetzaleko neskek hiru sarituen artean egoteko apustuaz sinetsi eta lehenengoa irabazi dute ez bakarrik aktibatu duten sare pertsonalekin, baizik eta saretik sarera, taldez talde herrian ibili den ilusioari esker. Klean, denda... "Zelan goiaz?", zen askoren galdera. Sari ezin hobea hilabete honetan ospatzen ari diren 25. urteurrenerako!



Txikuriaren kokapen berria

Santixauak ate joka ditugu eta Euskal Birusa Euskara Elkarte hasi da jaietarako prestatzen. Aurtengo edizioan, gainera, berritasunak egon dira, izan ere, txikuria tokiz aldatuko da eta Zubiaurre kaleko 21. zenbakian aurkituko duzue, Zubiaurrek Torrekua kalearekin bat egiten duen tokian. Ohikoa den bezala, Euskal Birusak gonbidapena egiten die Santixauak irauten duten bitartean txikuria lagundu nahi duten guztiei.

esanline[®]

+ @ + TV + Smartphone

☎ 846 080 010
Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua
💻 esanline.es

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU

SPARA
rehabilitación + sostenibilidad

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Erakina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua -Bizkaia-

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es

Horacio Decoración

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

Anne Erauskin eta Mirene Moreno Mundialera

Errotabarri Eskubaloi Taldeko Anne Erauskin (Zuazo taldean jokatu du datorren denboraldian) eta Mirene Morenok Hungarian jokatu den junior mailako Munduko Txapelketa jokatu dute Espainiako selekzioarekin. Imanol Alvarez hautatzaileak bere herrikideak deitu ditu uztailaren 1etik 14ra jokatu den zita garrantzitsurako. Alvarezk, bestetik, Bera Bera taldea entrenatuko du datorren denboraldian.



Isuna Aiuri Antiespezista taldeko kideei



Santo Tomasetan erresistentzia pasiboz, Ursula txerriaren erakusketa galarazten saiatzeagatik, 7.200 euroko isuna jarri diete Askekintzako ekintzan parte hartu zuten hamabi kideei, tartean Aiuriko hiru laguni (1.800 euro ordaindu beharko dituzte). Egoera hori salatzeko, Aiuri Antiespezistako militanteek, Eleak Librerekin batera, prentsaurrekoa eskaini zuten ekainaren 1ean.

PRIDE ASTEA EKAINAREN 23TIK 29RA

Kimaira elkarteak Pride Astea antolatuko du ekainaren 23tik 29ra eta hainbat ekintza hartuko ditu herriak egun horietan. "Atera itzazue lepokoak, pelukak... armairutik, jantzi itzazue eta anima zaitetze gurekin batera gure genero edota sexualitatea harrotasunez gozatzera", esan digute elkartekoei.

2018ko ekainaren 23tik 29ra
ERMUKO PRIDE ASTEA

- LAUNBATA**
19:00 Antzeziana: "Sumergirse en el agua" (Ermuko Antzokian)
- ASTELEHENA**
15:00-20:00 Stand (Patsi plazan)
19:00 Lesbikomikia (Emakumeen topalekuan)
- ASTEARTEA**
15:00-20:00 Stand (Patsi plazan)
- ASTEAZKENA**
17:00-19:00 Stand (Patsi plazan)
19:00 Gaymer (Loblanon)
- OSTEGUNA**
15:30 Kontzentrazioa (Cardenal Orbe plazan)
19:00 Martxa (Cardenal Orbe plazan)
22:00 Zinefora: "Stonewall" (Eskilarapekon)
- OSTIRALA**
17:00 Umeentzako jolasak (Ermuko plazan)
22:00 Kontzertuak (Eskilarapeko anteneoan)
- Ilargiak
- Zirtada & Rlantz

mari asun 
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

URRETA **burdindenda**

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Errailak
- * Giltzak
- * Savrilaigintza
- * Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Caperos

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

Pasio baten lehen pedalkadak

Drogeteniturriko ale honetan elkarriketatu dugun Igor Astarloak bezala, Ermuan eman dituzte txikitatik lehen pedalkadak artikulu honetako protagonistek. Ostadar maillotarekin amestea asko da, historian zehar txirrindulari gutxiren esku dagoen zerbait, baina edonork dauka bizikleta gainean gozatzeko aukera. Ermuko Txirrindulari Taldeko gazteenek ondo dakite gurpil biren gainean disfrutatzen eta, gainera, maila ona erakusten dute.

Eskubaloia, futbola eta saskibaloia dira, orokorrean, eskola adinean umeen artean arrakasta gehien izaten duten kirolak. Ermuan, ordea, txirrindularitzak beti izan du garrantzia, gurpil gainean ondo moldatzen dira ermuarrak gaztetatik eta, ondorioz, Ermuko Txirrindulari Taldeak txirrindulari gazteen talde polita osatu du. 6 eta 14 urte bitarteko 17 txirrindulari osatzen dute taldea. Neska eta mutilek elkarrekin korritzen dute lasterketetan, baina infantiletan 9 neska baino gehiago

badaude, bakarrik lehiatu daitezke. “Gure taldekoek nahiago dute nesken artean lehiatu, baina ez diete beldurrik mutilei”, esan digu Loli Roo Ermuko Txirrindulari Taldeko entrenatzaileak

Ermuko txirrindularitza eskolak 40 urte inguru ditu, baina Rooren ustetan jendeak ez daki ondo umeek eskolarteko kirolean txirrindularitza aukeratu dezaketela. “Lagunek egiten dutena egiten dute umeek, eta eskubaloia eta futbola gailentzen dira Ermuan. Hala ere, kirol horietan oso onak ez direla ikusten duten gazte



asko guregana etortzen dira gero”.

Ume askok txirrindularitza izena ez ematearen arrazoia ikusgarritasun falta izan daitekeela azpimarratzen du entrenatzaileak. Izan ere, taldeak antolatzen duen lasterketa Hanbreko poligonoan egin behar izaten dute uztailearen 15ean, Ermuko kaleetan egitea ez delako segurua eta han toki gehiago dagoelako. Askok ez dute ekintza honen berri izaten eta ezin izaten dituzte gazteak erakarri. Sare sozialak dira gazteak erakartzeko arma eraginkorrenak eta taldeari buruzko informazioa jasotzen duten panfletoak banatzen dira herriko ikastetxeetan.

Lehiatu gabe ondo pasatzen

Taldeak garrantzia badauka ere, bakarka lehiatzen den kirola da txirrindularitza. “Zeure burua da daukazuna, ez besterik”, dio Rook. Eskola-bilerak deitzen diren saioetan lehiatzen dira

Bizkaian Ermuko Txirrindulari Taldekoak. “Hau da, ez dago lehiarik eta, beraz, ez dago irabazle edo galtzailearik”. Parte-hartzaile guztiek opari bera jasotzen dute eta bizikleta gainean ondo pasatzea da helburua. “Bizkaiko eta Euskadiko Txapelketetan, ordea, bai egoten da sailkapena, baina maila handiagoko saioak izaten dira eta infantilak bakarrik lehiatzen dira”. Gainera, ohiko egutegiaz gain, infantilek beste proba berezi batzuk izaten dituzte etorkizunean aurkituko dutenari begira prestatzen joateko (erlojupekoak, kronoigoerak eta abar). “Infantiletatik aurrera talde batera jauzi egin behar izaten dute eta hor bai hasten dira benetan lehiatzen”.

Maila ezberdinetan aritzen badira ere, eskola-kirolaren barruan dabilten txirrindulariek egutegi bera izaten dute eta, beraz, adin guztietako umeak elkarrekin joaten dira eskola-bilera egitea tokatzen den herrira.



solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

“Urtean 24 lasterketa egin ditzake bakoitzak gehienez, eta larunbatetan mendiko-bizikletako lasterketak egin dira eta igandeetan errepedekoak. Txirrindulari bakoitzak erabakitzen du non ibili nahi duen”.

Sozializatzeko aukera

Lasterketak zirkuitu itxian egiten dira infantil mailara arte. “Beraz, segurua da, ez dago arrisku handirik”. Entrenatzaileak adierazi digunez, askotan umeek izena eman nahi dute, baina gurasoek ez diete uzten, beldurra ematen dielako. “Bada, lasterketa normalez gain, ginkanak ere egiten dituzte eta abilezia handia hartzen dute bizikleta gainean”. Ginkana horien bitartez lortutako abilezia berebizikoa dela deritzo Rook, bizikleta gainean askoz ere seguruago ibiltzeko gaitasuna ematen dielako gazteei.

Bakarka lehiatzen den kirola bada ere, Ermuko gazteek beste txirrindulariekin asko sozializatzen dutela aipatu digu Rook. “Toki guztietan dituzte lagunak gure txirrindulariek”. Orain dela gutxi parte hartu zuten lasterketa batean 300 ume inguru zeu-

den eta lagun berriak egiteko aukera ezin hobea da umeentzat entrenatzailearen uste-tan. Gainera, hainbat kanpusetara ere joan dira Ermuko txirrindulariak eta kirol honen inguruko ezagutzak handitu dituzte jende berria ezagutzen zuten heinean (nutrizioa, materiala eta abar).

Ermuko Txirrindulari Taldeak bizikletak eta beharrezko materiala eskaini die ume guztiei. “Ez dira punta-puntako bizikletak, orain dela hainbat urte utzi zizkigulako Orbeak, baina oso ondo daude gure txirrindularientzat”. Gero, nahi duenak bere bizikleta erabil dezake, baina normalena etxean mendiko-bizikleta edukitzea dela aipatzen du entrenatzaileak. “Gainera, ez dugu nahi ume batek hasieratik bizikleta bat erostea, bi egunetara kirola utzi eta bizikleta alperrik galduko duelako”. Momentu honetan taldeak ez dauka babeslerik eta esku zabalik hartuko dituzte proposamenak.

Arrakastatsuak txikitatik

Ondo pasatzeko eta txirrindularitzaren munduan murgiltzeko hasten badira ere,



Ermuko gazteek eskuak altxatu dituzte jada hainbat lasterketatan. Bizkaiko Txapelketako ginkana proban emakumezkoen infantiletako lehen urtekoen mailan Izaro Oliveirak lehen postua lortu zuen eta infantiletako bigarren urtekoen mailan Ixone Miñambres bigarrena izan zen, eta gizonezkoen infantil mailan Oier Moran gailendu zen; errepedeko lasterketan, bestetik, gizonezkoen infantiletako bigarren urtekoen mailan Aimar Galdosek irabazi zuen, Ixone Miñambres bigarren izan zen emakumezkoen infantiletako bigarren urtekoen mailan, eta Izaro

Oliveirak bigarren amaitu zuen infantilen lehen urtekoen kategorian. Bestetik, Arrasaten Euskadiko Txapelketa lehiatu zen orain dela aste batzuk eta Aimar Galdos ginkanako azpitxapeldun izan zen eta 3. postuan amaitu zuen errepedeko lasterketa. “Orain, uztailearen 6tik 8ra Galizian egingo den Espainiako Txapelketara joango dira Aimar eta Ixone”, dio pozik Rook. Izan ere, ez dago zalantzarik, Ermuko txirrindularitzarekin duen maitasun historiak iragana izan du, oraina dauka, baina batez ere ziurtatuta dauka etorkizuna.

EKHi Velar

Modas Cande
Candelaria Rueda

Diputación, 12 | 48260 ERMUA Bizkaia
T 665 703 904
modascande@gmail.com

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda
berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

ZK

**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
"LAN BABESERAKO
ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

Ingurumen batzordekoak "Euskal CONFINT 18"an eta Ermuko Udalbatzarrean egon ziren

Aurreko ikasturteetan bezala, aurten ere Euskal CONFINTean parte hartu dugu eskola jasangarrien sareko kideekin. Gure ordezkariak Uxua Lopezekin egun zoragarria pasatzeko aukera izan zuten. Uxua Antartidarako espediziora joan zen, "Ama-Naturak bere alabak behar ditu" lemapean, mundu osoko 80 zientzia-emakumerekin batera. Oso esperientzia interesgarriak kontatu zizkigun!

Guk eskolan egindako superheroia, Birziklator, eraman genuen. Izan gaitetzen denok tokian-tokiko superheroiak, birzikla dezagun!

Beste alde batetik, ingurumen batzordeko beste ordezkari batzuk Ermuko udalbatzarrean parte hartu zuten. Bertan, herriko diagnostikoa egin ondoren, beste eskoletako ikasleekin ura zaintzeko proposamen eta konpromisoak aurkeztu genituen.

Proposamen eta konpromiso horiek aurkeztu aurretik, eskola komunitate osoan uraren inguruan hausnarketa sakona egitea izan zen ikasturte honetako helburu nagusia. Hausnarketa honen ondorio nagusia hau da: Ura eta ibaiak guztiok ditugun ondasun preziatuak dira. Ez dago bizitzarik urik gabe.



Ermuan bagara, Eskolabarrin bagara!

Aurten ere, Ermuko Euskalzaleen Elkarteak "Ermuan Bagara, 3 egunez euskaraz" ekimena antolatu zuen. Beraz, maiatzaren 25a, 26a eta 27a ekintzaz beterik egon ziren.

Eskolabarrin ere parte hartu nahi izan du euskararen erabilera bultzatzea eta gure hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen ekimen honetan. Horregatik, aste honetan zehar eskolako ikasle guztiarekin Ermuan Bagara dantzaren bideoa grabatu genuen. Irakasle, langile eta familiek ere bat egin nahi izan zuten eta beste bideo bat grabatu zuten.

Ermuko eskola guztiak artean eta Antxitxiketan Aisialdi Taldearen laguntzarekin, maiatzaren 25ean, antolatu ziren Eskolako olinpiadetan 3.mailako ikasleek parte hartu zuten. Ermuko plazan izan behar zen ekintza, baina euria zela eta, merkatu plazan egitea erabaki zen azken momentuan. Nahiz eta leku gutxiago izan, ikasleek primeran pasatu zuten.

Ermuan Bagarako egitasmoaren helburu nagusiari, hizkuntza ohiturak aldatzeko helburuari, jarraituz, eskolan Euskara Batzordeko irakasle, guraso eta ikasleek euskararen erabilera saritu nahi izan dute azken bi hilabete hauetan. Euskararen erabilera kuantifikatuz eta puntu zehatz bat lortzen zuten orori txapa bat oparitu diote.



OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

SAN PELAYO
HORTE KLUBA + CLINICA DENTAL

Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a ti

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI tit. nº 1284

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04
✉ info@clinasanpelayo.com
📍 San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

OSASUNA • ESTETIKA EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

♿ **Egokitutako burua garbitzeko konketa**

943 17 28 09 • Goienkale 12

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305



KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Biba San Juen!

San Juan egun handia hemen da berriro. Aurten domeka da eta astebururo bezala amamaren base-rrian pasa dugu gaua. Oporrak ezin hobeto hasteko plan bikaina.

Urteko egunik luzeenean oso goiz argitzen du eta Ander eta biok ere goiz jaiki gara eguna ahalik eta ondoen aprobetxatzeko asmoz. Beti egoten da zereginen bat eta, ahal dugun guztietan, lagunekin mendi buelta bat egitera joaten gara gero.

Gosaltzera joan garenean, amama ez zegoela ikusteak harritu egin gaitu, normalean gu jaisten garenerako berak sukaldean ia dena prest izaten baitu guretzat.

-Ikusi amama! Lore sorta magiko bat prestatzen dabilela ematen du -esan dit Anderrek, ahozabalik, leihotik begiratzeko keinua eginez.

Bai, horrela da. Ortu inguruan dabil eta mimo handiz lizar adar sorta aukeratu berria darama eskuan. San Juan lorea ere hartu du, suabe jaso ere, ziur naiz baimena eskatu-

ta egin duela. Aurkitu dituen belar solteak ere sortara batu eta base-rriarene sarreran geratu da. Aulkia- ren gainean prest zuen iltzearekin dena ondo lotu eta atearen gainean ipini du. Pozaren goxoaz eta irribar- rea ahoan hari begira geratu da, berak baitaki eta ziur da baserria eta denok babestuak izango garela, beste behin, urtebete gehiagoz.

-Bai, hemen aitxixak egiten zuen eta gure aita zenak ere bai. San Juan egunean beti, urtero, goizean goiz, lehen eguzki izpiak jotzen hasi aurretik. Aurreko egunetan lizar- rari begira orduak ematen zituzten, isilean, bere balio babeslea gorai- puzten eta adarrik ederrenak zeintzuk ziren erabakitzen. San Juan lorea ere egun batzuk lehenagotik auke- ratua izaten zuen. Dena egiten zen zegokion denboran, zegokion erri- moan, zegokion errespetuarekin. Naturarekin bat bizi ginen eta fun- tsezkoa zen denontzat, eguna la- burtzen hasten zen egunean, uzta onak izango genituen esperoan-



Ainara Riveras

horixe kontatu digu amamak, hun- kituta, elkarrekin gosaldu dugun bi- tartean.

Atzo iluntzean, San Juan Suaren inguruan, lagun asko batu ginen dagoeneko behar ez ditugunak beti- ko utzi eta desiorik sakonenak es- katzeko. Batzuek paperean idatzita- koak bota genituen sutara. Izan zen, amamak bezala, urtebete etxe- ko atarian babesle izan duen sorta bota zuenik, hurrengo goizean berriari ongietorria egiteko gogoaz. Kantak dioen moduan: San Juen, San Juen. Arraultza bi kolkuen, bes- te bi altzuen. Gaiztuek eta lapurrek erre erre. Artuek eta garixek gorde gorde. Biba San Juen!

“ Dena egiten zen zegokion denboran,
zegokion erritmoan,
zegokion errespetuarekin ”

arral97.com
arral

Tel.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Udal Euskaltegia

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

Hamburguesería
TITANIC

Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax: 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**MALLABIA
1996**

1996 urtean sortu zan Mallabiko futbol taldea, Carlos Perez izan zan ekimena martxan jarri zuenetako bat. Argazkian, urte horretako jokalaria eta teknikoekin agertzen da.

Carlosekin batera argazkian daude: Rafael Rubias, Jose Manuel Alvarez, Jonatan Azkondo, Xabier Ozaeta, Oier Flores, Iñigo Pradera, Jose Vicente Ramos, Albano Luque, Iñaki Apolinario, Oscar Alvarez, Gabril Barranco, Mikel Magno, Jorge Moreno, Ivan Garcia eta Manuel Romero.

**ERMUA
1968**

50 urte beteko dira San Fermin egunean San Pelaixoko ermita inauguratu zela. Egun horretan egindako argazkian, ermita parean Udaltzateko, Parrokiako eta Udaltzaingoko hainbat ordezkari agertzen dira. Ezkerretik eskumara: Rafael Urreta, Antonino Mallagaray eta Juan Landa zinegotziak, Ignacio Onandia alkatea, Teodoro Zuazua abadea, Alejandro Zubizarreta txistularia, Fernando Echevarria zinegotzia eta Juanillo García aguazila.

Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

Proba-Leku

Hezpaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

SALGAI

42 metro karratuko mobil-homea salgai. Bañareseko kanpinean dago (Errioxa, Santo Domingo de la Calzadatik 2,5kmra). Teilatu bikoitza. Hiru logela, egongela, sukaldia eta komuna, dutxa eta bidearekin. Aire egokituua. 30 metro karratuko portxea toldoarekin. Prezio negoziagarria. ☎ 943031477 (gauean, 20:00etatik 22:00etara).

ALOKAGAI

Pisua alokagai Ermua erdialdean. Altzariz jantzia. Bi gela, egongela, komuna, trasteroa eta sukaldia. 669 20 91 83.



Maiatzaren 22an
Zorionak Lander! Zure anaiaren eta aitxitxa eta amamaren partez! Muxu handi bat!



Ekainaren 9an
Zorionak Oihane! Zure lehenengo urtebetetzean. Askok maite zaitugu! Aita, ama eta Anderren partez.



Ekainaren 1ean
Zorionak Illan, gure etxeko txikiak 9 urte egin ditu. Musu handia ama, aita eta Martinen partez, maite zaitugu.



Ekainak 27
Zorionak Hodei zure 4. urtebetetzean. Muxu potolo bat etxekoan partez.



Ekainaren 18an
Zorionak pitxin!!!! Disfrutatu zure lagunekin. Baina familiatz ere gogoratu. Askok maite zaitugulako. Familiaren partez!



Ekainaren 11n
Zorionak Oier!!! Ondo pasa zure urtebetetzean. Muxu handi bat Lucia, Diana eta osaba Oscarren partez. Aupa zu!!!



Ekainaren 15ean
Zorionak Aiala zure 7. urtebetetzean. Musu handi bat aita, ama eta Lukenen partez.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua:
drogeten@gmail.com

Gogoratu zoriondu nahi duzuenaren izen-abizena idaztea ere.

Azken eguna: **Uztailaren 11a.**



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISÉTATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00



943 170474



ileapaindegia

Silvia

peluquería



688819336

Uztailak 14. Larunbata

- 09:30. San Pelayioko kantxetan. PADEL LEHIAKETA.

- 10:00. Plazako frontoian, ARKU-TIRO PROBA.

- 10:00. Lobianon, MAHA! eta ESTRATEGIAREN JOKOAK.

- 10:00. Plazan, ALDIBEREKO ETA AZKA XAKE PARTIDEN ERAKUSTALDIA.

- 14:00. Martxoak 8 plazan, HERRI BAZKARIA, Afrikan Bakh Yay taldeak girotuta.

- 14:00. Martxoak 8 plazan, HERRI BAZKARIA, Afrikan Bakh Yay taldeak girotuta.
- 16:30. Martxoak 8 plazan, MALIKO DANTZA ERAKUSTALDIA.

- 18:30. Martxoaren 8a plazan, KONTZERTUA El Suufu Afrika taldearen eskutik.

- 23:30. Plazan, Huntza taldearen KONTZERTUA.

Uztailak 15. Igandea

- 9:00. PADEL LEHIAKETA, San Pelayioko kantxetan.

- 9:30. San Martin plazan, XVI. BLOOD-BOWL TXAPELKETA.

- 09:30. MENDIBIZIKLETAKO XXIII. HERRI MARTXA.

- 11:00. SANTIXAUAK TXIRRINDULARITZA PROBA, Ambreko industrialdean.

- 20:00. Martxoak 8 plazan,

KONTZERTUA, Eirband.

Uztailak 16. Astelehena

- 19:00. Plazan, TXARANGEN ARTEKO JOKOAK.

- 22:30. Martxoak 8 plazan, KONTZERTUA, D,Capricho.

Uztailak 17. Asteartea

- 17:30. Martxoaren 8a plazan, "Mu eta zu!" haurrentzako ikuskizuna.

- 19:00. Plazan, TXARANGEN ARTEKO JOKOAK.

- 22:30. BERTSO JAIALDIA Martxoaren 8a plazan

Uztailak 18. Asteazkena

- 18:00. Betiondoko kiroldegian eta Aritzmendi pilotalekuan kiroldegian ARETO-FUTBOL TXAPELKETAren hasiera.

- 19:00. Plazan, TXARANGEN ARTEKO JOKOAK.

- 21:00. Plazan, HERRI OGITARTEKADA.

- 22:30. Plazan TXARANGEN ABESTI - LEHIAKETA.

Uztailak 19. Osteguna

- 18:00. ARETO-FUTBOL TXAPELKETA.

- 19:00. Plazan, TXARANGEN ARTEKO JOKOAK.

- 22:30. Martxoak 8 plazan, pop KONTZERTUA, Biren.

Uztailak 20. Ostirala

- 15:30. San Pelayon, SANTIXAUKO PADEL II. TXAPELKETA.

- 17:30. plazan, HAURRENTZAKO JOKOAK INGELESEZ.

- 18:00. Betiondoko kiroldegian, ARETO-FUTBOL TXAPELKETA.

- 18:00. plazan, PALETA TXAPELKETAAREN FINALAK.

- 19:00. plazan, RUGBY PROBATZERA ETOR ZAITEZ ekitaldia.

- 22:30. Plazan PLAYBACK LEHIAKETA.

Uztailak 21. Larunbata

- 08:00. Mallabiko Pedro Deunaren zelaian, TXAKURREN ERAKUSTALDHEHIAKETA.

- 09:30. Betiondoko kiroldegian, ARETO-FUTBOL TXAPELKETA.

- 09:30. San Pelayioko kantxetan, SANTIXAUKO PADEL II. TXAPELKETA.

- 10:00. Plazatik, URKO 69etan ezetz! IX. IGOERA KONTROLATUA.

- 12:00. San Pelayioko Bolatokian, BOLOPALMAKO SANTIXAUAK 2018 SARIA.

- 16:30. Plazan, XVI. MUS TXAPELKETA HERRIKOIA.

- 17:00. Plazan, SENEGAL-KO BORROKA ERAKUSTALDIA.

- 19:00. Plazan, DANTZA EMANALDIA Grupo de dantzantes Gurrea de Gállego (Hueska) eta Txindurri taldearen eskutik.

- 23:30. Plazan, Orihen eta,

gero, Rulo y La Contrabanda taldearen KONTZERTUA.

Uztailak 22. Igandea

- 09:30. SANTIXAUKO PADEL II. TXAPELKETAAREN finalak.

- 10:30. Plazan, IRRATIZ KONTROLATURIKO KOTXEN TXAPELKETA.

- 10:30. Plazan, XAKE TXAPELKETA.

- 19:00. Plazan, Txindurriren DANTZA EMANALDIA MUSIKA ETA DANTZA JAIALDIA,

Tailandiako Chanthaburi eta Siberiako Ogonki taldeekin.

- 23:30. Martxoaren 8a plazan, MAGIA IKUSKIZUNA Jon Zabalen eskutik.

Uztailak 23. Astelehena

- 10:30. Plazan, BURUHANDIAK.

- 11:00-13:00/16:00-

19:00. Plazan, HAURRENTZAKO PARKEA eta TAILERRAK.

- 16:00. Plazan, BURUHANDIAK.

- 17:30. Plazan, HAURRENTZAKO TXOKOLATEJANA.

- 19:00. Plazan, "Txapela buruan eta dantza munduan" HAURRENTZAKO MUSIKA-IKUSKIZUNA.

20:30. Plazan, APAR JAIA

- 22:00-01:00. Martxoaren 8a plazan, FESTAN BLAI.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

**PRO
arraindegia**



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

**Infreñu
Taberna**

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com



ALBOKA




**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia	- Klarinetea
- Biolina	- Panderoa
- Biolontxelo	- Perkusioa
- Bonbardino	- Pianoa
- Flauta	- Saxofoia
- Kantua	- Trikitrixa
- Gitarra	- Tronboia
- Gitarra elektrikoa	- Tronpeta
- Gitarra baxua	- Txistua
- Lengoaia musikala	

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE
Bainugelen erakusketa
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

PERTSIANAK
ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zoarreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ETXE-BIRGAITZEAK

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina - Zoharkalea, 36, 3º - 48260 Ermua - Bizkaia

ETXETRESNAK

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) - 943 17 66 08

ELEKTRIZITATEA

BETA

ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Kalefakzioa
- Instalazioak
- Gaueko tarifa
- Erreformak
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ERROTULAZIOA

ROTEK
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)
T / F: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

SAN JUAN SUA

EKAINAREN 23AN, 22:30 ETAN

ERMUKO ORBE KARDINALAREN PLAZAN

22:30 ETAN AKELARREA
IRRINTZI LEHIAKETA
SAN JUAN KANTUA
KORRU DANTZAK

00:00 ETAN SUZKO ZEZENA

**ANIMATU
ZAITEZTE!!**

ANTOLATZAILEAK:

Euskal
Birusa
Elkartea



LAGUNTZAILEA:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMILIA
ERMILIA HIRIKO UDALA